

KONTROL MOZIOA

Udaltzaingoaren eredia dela-eta

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2016ko ekainaren 20an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Udal Gobernuaren aginduz, joan den ekainaren 7an Udaltzaingoa Gipuzkoa Zutik ekimeneko kideengana bidali zen, garatzen ari ziren protestaldia zapuztera; lehenik, Gipuzkoa plazara, eta hura hustutakoan, Bulebarreko kioskora. Eguerdian Bulebarrean ikusitako irudiak izugarri kezagarriak eta onartezinak izan ziren, eta jatorria erabaki politiko eta alderdikoiaren dute iturburu. Halako kritikak jaso ditu herritar askoren partez eta Udaltzaingoaren sindikatu batzuen partez ere bai.

Aldarrikapenak plazaratzeko jarrera baketsuari emandako erantzunak ez du bizikidetzaren eredia eman, baizik eta, balizko gatazkak konpontzerakoan, elkarrizketa erabili nahi ez duen hiri irudia. Hain zuzen ere, elkarrizketaz eta interlokuzioaz interpelatu genuen Udal Gobernuak, hartu zituen erabaki eta aginduen inguruan sakontzeko asmoz, berak emaniko aginduen ondoriozko egoera izan baitzen ekainaren 7koa. Eta, horrekin batera, Udaltzaingoaren eredia aztertzeke helburua ere bazuen interpelazioak, aurreko guztiarekin estu lotuta baitago. “Uste al du Udal Gobernuak horrelako gertakizunek laguntzen dutela gertutasunean oinarri duen Udaltzaingo eredia lortzen?” galdera argia izan arren, Udal Gobernuak ez zuen ereduaz hitz egin nahi izan, interpelazioa horri zegokiola zalantzan jarrita ere.

Udaltzainak herritarrengandik gertu aritzen diren udal langileak izanik, gertutasun hori indargune duen ereduaren sakontzea ezinbestekoa da, egunerokoa elkarrizketan eta tratu zuzenean eraikia. Eredu hori helburu eta gidari izatea Udal Gobernuari dagokio, bai Udaltzaingoaren egunerokoa aritzerakoan, bai berak erabakiak hartzerakoan eta aginduak ematerakoan. Hau guztia, gainera, 2016ko testuinguruan inoiz baino garrantzizkotzat jo daiteke zalantzarik gabe, Donostiak elkarbizitzaren eredu izan nahi badu.

Horiek horrela, hauxe da aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

1.- 2016-Europako Kultura Hiriburutzaren testuinguruan, helburu nagusia elkarbizitza delarik, Donostiako Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari, Udaltzaingoa sustatzeko herritarrekiko gertutasunean oinarrituko den eredu.

2.- Donostiako Udalbatzak eskatzen dio Udal Gobernuari hartzeko jarduketa-protokoloa, proportzionaltasunaren printzipioak eta bildutako inguruabarrekiko egokitasunaren printzipioak gidatua eta zuzendua, herritarrekiko gertutasunean oinarritutako ereduaren baitan.

Donostian, 2016ko ekainaren 24an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH BILDU udal taldeko zinegotzia